



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**

PASAIA-LEZO LIZEOA HLHIP

---

**Ikastetxearen kodea:**

013506

**Data:**

2023(e)ko ekainaren 13(a)

---





# 1. SARRERA

## Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Pasaia-Lezo Lizeoa, Pasaia eta Lezo badiako bost ikastolen baturatik sortu zen 1970. hamarkadan. Lehenik Pasai Antxon, Trintxerpen, San Pedron, Donibanen eta Lezon ikastola txikiak sortu ziren 60. hamarkadan bertako herritarren ekimenez, Euskal Herri osoan gertatu zen moduan.

Pasaia-Lezo Lizeoa Irakaskuntza Kooperatiba Elkarte, 2003 urtean sortutako kooperatiba integrala da. Bertan, bazkide erabiltzaileak (gurasoak), lan bazkideak (langileak) eta bazkide laguntzaileak (guraso eta ikasle ohiak, herritarrak...) parte hartzen dute. Uneotan 1037 bazkide erabiltzaile, 153 lan bazkide eta 257 bazkide laguntzaile osatzen dute kooperatiba.

Kooperatibak bost eraikin erabiltzen ditu. Antxoko ikastola (0 - 5 urte bitarte), San Pedroko ikastola (2 – 5 urte bitarte), Donibaneko ikastola (0 – 5 bitarte), Lezoko ikastola (0-8 bitarte) eta eraikin nagusia (9-18 urte bitarte).

Era berean kooperatibak Lilitegia SL-ren kapital sozialaren %100 du eta elkarte hau Trintxerpen kokatuta dagoen Pasaiaiko udal haur eskolako kudeatzailea da.

## EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

Problematika sozial handia duen inguruan kokatzen da Pasaia-Lezo Lizeoa Irakaskuntza Kooperatiba Elkarte (aurrerantzean IKE). Haren eragin eremua dentsitate handikoa da, eta bizitza kalitatea Gipuzkoako baxuenetakoa da. Ikasleak, oro har, oso giro urbanokoak dira. Hona hemen datu batzuk:

Lezon 2006an 5.880 biztanle bizi ziren, eta bertako dentsitatea 683'8 biztanle/km<sup>2</sup>-koa zen (2020 urtean 6080 biztanle eta 717'8 biztanle/ km<sup>2</sup>) Data horretan Pasaiaiko udalerrriak, 15.945 biztanlerekin, 1.500 biztanle/km<sup>2</sup>-ko dentsitatea zuen (2020 urtean 16722 biztanle eta 1579 biztanle/ km<sup>2</sup>). Konparazioan errazagoa baita neurtzea, Euskal Erkide Autonomoko dentsitatea orduan 300'2 biztanle/km<sup>2</sup>-koa zen, eta Gipuzkoakoa 309'9-koa.

Hona 2017-2018ko datu ekonomiko batzuk:

## Errenta GORDINA (BIZTANLEKO ERRENTA)

Gipuzkoa:22.086  
Donostialdea:20.778  
Lezo (2018):19.283  
Pasaia:14.989

## Bataz besteko familia errenta (ERRENTA GUZTIRA/LAN-ERRENTA)

Gipuzkoa:43.589  
Donostialdea:52.143/29.179  
Lezo:39.855/25.858  
Pasaia:34.528/20.921

## LANGABETUAK EUSTAT-en (2019)

Gipuzkoa:% 8,81  
Lezo:% 8,6  
Pasaia:% 11,3

Ikusten ahal den moduan, adierazle ekonomikoak ingurukoak baino franko baxuagoak dira. 2012-2013 ikasturtean, esaterako, Pasaia-Lezo Lizeoan 564 ikasleri eman dio beka-laguntza Euskal Gobernuak, hau da, gure ikasleen %45ri.

1980-1990 urte tartean egin zen industria birmoldatzeak hondamendi urbanistikoa eta ekonomikoa ekarri zuen Pasaia aldera. Egoera haren ondorioak oraindik ere jasaten ari da gure bailara. Problematika hori gainditzeko lagunduko duen ekimen estrukturalik ez da oraindik aurrera eraman.

Paisaje sozio-ekonomiko eta urbanistiko hondatu horri ingurunearen kutsadura erantsi behar zaio. Bat baino gehiago izan dira

kutsadura horren eragile: Pasaiaiko Portuko kontrolik gabeko txatarra deskarga, Iberdrolako termika (2012tik desagertua), Algeposa bezalako enpresak, N-1 errepeidea...

Pasaiaik, bestalde, oso kokapen geografiko konplexua du: badiaren inguruan kokatzen den herria da, eta barruti batetik bestera joateko auto dentsitate ikaragarria duen errepeide saretik egin behar da. Aspektu horrek eragina du gure hezkuntza proiektuan autobus garraioaren mende baikara.

XXI. mende hasierak etorkin belaunaldi berri bat ekarri digu: ez da oraindik kopuru izugarri handia, baina gero eta esanguratsuagoa da. Europako ekialdetik, Hegoamerikatik, Magrebetik... gero eta etorkin gehiago ari dira iristen Euskal Herrira, eta baita gure bailarara ere. Une Irunekin batera gure bailarak jasotzen du Gipuzkoako etorkin kopuru handiena. Horrek, bistan da, erronka handia suposatuko du gure Hezkuntza Proiektuan ondoko urteotan.

Pasaiaik eta Lezok sare sozial dinamikoa dute: kalea herritarren bilgune da, eta jarduera sozial ugari antolatzen duten hamaika kirol elkarte, elkarte gastronomiko eta kultur elkarte dago.

Ezin ahaztu, 2020ko martxotik aurrera bizitako pandemiak (COVID19) gure errealitatean izan dituen ondorio ekonomiko (ERTEak, kaleratzeak, autonomoen jarduera ekonomikoaren etena), soziosanitario (arreta psikologiko behar handia eta erantzunik jaso ez duena) eta pedagogikoak.

## EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Pasaian garai bateko emigrazioak –XX. mende hasierakoa Antxon eta Trintxerpen, eta 60ko hamarkadakoa barruti guztietan populazioaren zati garrantzitsu bat hartzen du, eta 10-25 urte bitarteko gazteen artean, erdiak bigarren belaunaldiko etorkinak dira. Euskarari gagozkiola, horrek eragin handia du: ezagueran asko aurreratu bada ere azken urteotan, erdara da jaun eta jabe oraindik pasaitarron hizkuntza harremanean.

Lezo herri euskaldunagoa da. Hala ere, 1960-70 hamarkadan etorkin uholde handia izan zuen, eta hizkuntzari gagozkiola, barnera ezina gertatu zitzaion eta erdara bihurtu zen kaleko hizkuntza nagusi.

## ONDORIOAK

Inguru honek gure Hezkuntza Proiektuan honakoak kontuan hartzea behartzen gaitu:

Gipuzkoako gainontzeko herrien aldean dagoen egoera sozio-ekonomikoak problematika berezia ekartzen du gurera, besteak beste, arazoak dituzten familiak ugariagoak izatea. Horrek eragin zuzena du gure Hezkuntza Proiektuan: eskolak edonon izan behar du konpentsatzailea eta inklusiboa, are gehiago gure inguruan.

Egoera sozio linguistikoak ere eragin handia du gure Hizkuntza Proiektuan. Euskararen erabilera ez dago normaldua, eta gure ikasle eta seme-alaba gehienentzat euskara bigarren hizkuntza da oraindik ere.

Gure inguruko paisaje sozio urbanistiko hondatu eta kutsatuak ere eragiten dio gure Hezkuntza Proiektuari. Ingurunearen gaineko errespetua curriculum guztietan sartzen ari den garaian, erabateko garrantzia hartzen du gurean.

Kokapen geografikoak azpiegitura antolaketa oso konplexua izatera behartzen gaitu.

Pandemiak sortu dizkigun ondorioei erantzun egoki bat ematera behartzen gaitu:

- o Ekonomikoetan estrategia eta bitarteko berriak pentsatu beharko dira, besteak beste, BEKA eskaintza errealitate berrira egokitu, azpiegitura antolaketa birmoldatu (jangela, ikasgelen ratio berriak eta irakasle-langile taldea handitu)
- o Arlo pedagogikoan lan tresna, estrategia eta metodologia berriekin hasiak gara eta hauen erabilera eraginkorrena lortzera bideratutako formazio saioekin jarraitzeko planifikazioa martxan dugu.
- o Laguntza psikologikoa beharko duen ikasle taldea handiagoa izango denez, erantzun bat emateko, koordinaziorik egokiena lortze alderako pausuak eman beharko dira ikastola, gizarte zerbitzu eta EPIren artean.

## PASAIA LEZO LIZEOA IKE-ren IZAERA eta BALOREAK:

Pasaia-Lezo Lizeoa IKE partaidetza sozialean oinarritzen den ikastola da, hezkuntza entitate euskalduna, euskaltzalea, pluralista eta kalitatezko hezkuntza eskaintzen duena.

Bere eginkizuna gure seme-alabak hezteko familiok dugun eginkizunean laguntzea da. Hau da, gure seme-alabak/ikasleak, pertsonak bezala bere osotasunean hartuz, giza balorez eta gaitasunez hornitzen ditu, bizitzaz gozaten jakin dezaten, eta pertsonak bezala erantzukizunak hartzeko gai izan daitezen.

Hori dena euskara eta euskal kulturatik kultur unibertsalera zabalduz egiten du, eta kultur unibertsaletik euskal kulturara eginez.

### IZAERA:

1. Pasaia-Lezo Lizeoa IKE entitate euskalduna da. Euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta normalizazioarekin konprometituta, euskal curriculumean oinarritzen du bere jarduera hezitzailea: euskalduntasunetik kultur unibertsalera zabalduz, eta kultur unibertsaletik gurera ekarriz.
2. Pasaia-Lezo Lizeoa IKE pluralista da, eta Euskal Herrian diren ideiak, familia ereduak, portaera sozialak, politikoak, filosofikoak eta erlijioso guztiak aintzat hartzen ditu, eta haien errespetuzko elkarbizitza bultzatzen du.
3. Pasaia-Lezo Lizeoa IKE konpentsatzailea da. Hau da, gure seme-alaben heziketa konpentsatzailea izan dadin nahi dugu. Beraz, arduratuko gara:  
Jatorri sozialak, kulturalak eta ekonomikoak sortzen dituen desberdintasunak antzematen  
Seme-alaben garapenean sortzen ahal diren desberdintasunak antzematen  
Desberdintasun horiei erantzun egokia ematen
4. Pasaia-Lezo Lizeoa IKE-k hautabide demokratikoa egina du. Bazkide erabiltzaileek, lan bazkideek eta bazkide laguntzaileek parte hartzen dute haren gestioan, eta era aktiboan laguntzen dute haren funtzionamenduan. Era berean, beraiei dagozkien gaietan, ikasleen iritzia ere aintzat hartzen da.
5. Pasaia-Lezo Lizeoa ikastola laikoa da.
6. Pasaia-Lezo Lizeoak hezkuntzari buruzko erabakiak hartzeko autonomia bere baitan mantentzen du.
7. Pasaia-Lezo Lizeoak genero arteko diskriminaziorik gabeko heziketa bultzatzen du, errespetuan eta eskubideen berdintasunean oinarritua.
8. Pasaia-Lezo Lizeoa ingurumenaren errespetuarekin konprometitzen da.
9. Pasaia-Lezo Lizeoa ikastola da, eta Euskal Herriko gainontzeko ikastolekin batera Euskal Herriko Ikastolak kooperatiba europarraren partaide.
10. Pasaia-Lezo Lizeoa Euskal Herriko Eskolaren aldekoa da.
11. Pasaia-Lezo Lizeoa herri onurako ikastola da –izaera hori aitortua dio administrazioak-, eta hezkuntza zerbitzu publikoan jarduteko borondatea du.
12. Pasaia-Lezo Lizeoak metodologia irizpide hauetan oinarritzen du bere jarduera pedagogikoa:  
  
Ikasle bakoitzaren premiei erantzun egokia ematen saiatzen gara, norbanakoari zuzendutako jardueren bidez eta aniztasunari arreta eskainiz, bakoitzaren gaitasunei dagozkien aukera egokiak bilatuz.  
  
Ikaskuntza esanguratsua gure egiten dugu.  
  
Ikaslea da bere garapenean erakitzaile nagusia. Metodologia aktiboa bultzatzen dugu.  
  
Gure metodologia ikasle-irakasle, ikasle-ikasle eta ikasle-ingurua elkarrekintzetan oinarritzen da.  
  
Gure ikastolan irakasleen talde lan koordinatua bultzatzen da helburu eta edukiak aukeratzeko, metodologia tankera zehazteko, izaera metadiziplinarra duten ekintzak antolatzeke, eta ebaluazio irizpide bateratuak erabiltzeko.  
  
Gure irakaskuntzan kontzeptu, prozedura, jarrera, balore eta arauen arteko lotura eta oreka bultzatzen da.  
  
Tutoretza egokiak duen garrantzia azpimarratuz, ikasleen beharrei erantzuneko dien etengabeko orientazioa bultzatzen da.

## PASAIA LEZO LIZEOAK SUSTATU NAHI DITUEN BALOREAK

1. Leialtasuna: leiala dela ulertuz, printzipioetan oinarritutako pertsona izatea, emandako hitza aintzat hartzea, eta norberaren buruarekin koherentea izatea.
2. Errespetua: errespetuzkoa dela ulertuz, bestea den bezala onartzen duen pertsona izatea. Besteak pentsatzen edo esaten duenarekin bat ez etorrita ere, bestea errespetatzen lagunduko duen jarrera demokratikoaren jabe izatea.
3. Kritikotasuna: kritikoa dela ulertuz, bizitza egokitzen zaizkion abaguneak, berezko irizpideekin baloratzeko gaitasuna duen pertsona izatea.
4. Entzuteko gaitasuna: hori dela ulertuz, besteak esaten duena jasotzeko gai den pertsona izatea. Hau da, errespetuzko jarrera neutraletik haratago, bestearen esanarekin inplikatzeko den pertsona izatea.
5. Solidaritatea: solidarioa dela ulertuz, besteen beharren aurrean laguntzera egiten duen pertsona izatea.
6. Norberaren autonomia: autonomia dela ulertuz, besteen esanen edota laguntzen zain egon gabe, eta gainontzekoak kontuan hartuz, bizimodua aurrera ateratzeko eta erabakiak hartzeko gai den pertsona izatea.
7. Sormena: sortzailea dela ulertuz, problema eta egoera desberdinetan aukera eta soluzio desberdinak bilatzeko gai den pertsona izatea.
8. Euskalduntasuna: euskalduna dela ulertuz, euskara ezagutu eta erabiltzen duena, eta Euskal Herria ezagutu eta maite duen pertsona izatea.
9. Beste kulturekiko begirunea: hori dela ulertuz, besteen kulturak onartzen eta errespetatzen dituen pertsona izatea.
10. Gizartearekin konpromisoa: konprometitua dela ulertuz, gizartearen arazoan aurrean kezka agertu eta haien konponbidean konprometitzen den pertsona izatea.
11. Ingurumenarekin konpromisoa: konprometitua dela ulertuz, ingurumenaren arazoan aurrean konprometitzen den pertsona izatea.

## Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Bost eraikinetan banatua egoteak, gure egunerokotasunean badu berebiziko eragina, telekomunikazioen egoera oso desberdina bait dugu barruti desberdinetan, esaterako Pasaia Donibanen kokatuak dauden eraikin nagusian eta JJ Otaegiko lilitagian oraindik ez dugu zuntz optikoa jartzeko aukera. Egun, gure interneterako sarbidea ona bada ere, behar baino zailtasun gehiago gaudituta da. Eta infraestruturaren aldetik zerbitzaria eraikin nagusian zentralizatua izateak baldintzatzen du iharduna.

### GAILUAK:

Pasaia Lezo Lizeoko gailuen eta sistema eragileen ekosistema anitza da, dependentziak ekiditearren.

Ikasleek beraien ibilbide akademikoa Linux ekipoekin hasiko dute. Gero Chromebook ekipoak erabiltzen hasiko dira Bi kasu hauetan, ekipoak armairuan ditugu. DBH hasterakoan, Chromebook ekipoak jabetzan hartzen zituzten (laguntzen ondorioz, orain maileguan). Eta azkenik, Batxilergoan beraien ekipoak erabiltzeaz gain, lan zehatzetarako Windows eramangarriak darabiltzate, armairuetan ere.

Irakasleei dagokionez, geletan eta irakasle geletan Windows 10 duten ekipo finkoak hobesten ditugu. Mantenuaren aldetik, ekipo finkoek konpontze errezegea dute, eta aldagarrien prezioa, orohar merkeagoa izaten da eramangarriekin alderatuta. Ekipo hoierekin eta erabiltzaileen kudeaketa Active Directory bitartez burutzen da.

Eraikin nagusian gela guztiak proiektore eta bozgorailuekin hornituta ditugu. Beste eraikinetan eta mailetan, (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza 1-2), beharren baitan, baina badira gutxienez hoierekin asetzeko espazio komunak proiektore eta bozgorailuekin.

#### KONEKTIBITATEA:

Interneteko sarbidea eraikin desberdinetan barrutietako egoerak baldintzatua dago. Eraikin nagusian sarbidea Euskalteleko hiru sarbideen bitartez egiten dugu, baina ekipoak Pasai Donibaneko udal eraikinean kokatuta daude, eta hortik gurera bi modu desberdinetan etortzen gara, bi zuntz optiko ditugu, eta hirugarrena antena bitartez, zuntzaren matxura edo mozketarik balego, konexioa ez eteteko guztiz.

Lezo, San Pedro eta Antxoko eraikinetan interneteko sarbidea zuntz optiko bitartez dugu, baina kasu honetan routerrak gure armairuetan kokatuak daude, horrek matxuren kudeaketa eta mantenua asko errezten duelarik.

Azkenik JJ Otaegi lilitagian sarbidea udaleko sarearen bitartez dugu, kablez konektatzen garelarik.

Firewall-ak ditugu hiru eraikinetan, interneteko trafikoa eta zerbitzariko sarbidea kontrolatzeko. San Pedron ez, oso ekipo kopuru txikia dagoelako (3) eta routerrak funtzio hori betetzen duelako. Azkenik, sarbidea JJ Otaegin udaleko firewall-ak kontrolatzen du.

Eraikin nagusian zerbitzari nagusia dugu. Ekipo horren gainean beste 6 makina birtual ditugu, behar desberdinetarako (aplikazioak, AD server controller, e.a.). Era berean, zerbitzari hauek raid disken bitartez backup-a dute. Beste zerbitzari bat dugu makina nagusiaren backup bezala, edozein momentutan abiarazi dezakeguna, nagusiarekin arazorik bagenu. Eta azkenik, zerbitzariko datuak bi bider gordetzen baditugu eraikin nagusian, azken backup bat egiten dugu Lezoko eraikinean kokatuta dagoen ekipo baten gainean, eraikin nagusiari eragin diezaiokeen edozein istripuk eragindako datu galerak ekiditeko. Eraikinetako kable sarean UTP5E eta UTP6 kategoriako kableatua dugu. Ez dugu zuntza erabiltzen ekipo desberdinen interkonexioa egiteko.

Wifi sarea azpiegitura kritikoa da eraikin nagusia, ikasleen sarbidea bertatik egiten dugulako. Sarbidea sare desberdinetan mailakatua dago, eta Ruckus etxeko ekipook iaz berritu genituen. Sarearen beharrak aztertuak, egungo azpiegiturarekin ekipo gehiago konektatzeko aukera dugu ala behar izanez gero etorkizunean. Beste eraikinetan ez dago Wifi sarbiderik, ez bada irakasle getetan eramangarriekin lan egin ahal izateko.

#### PLATAFORMA ETA ZERBITZU DIGITALAK:

Gure egunerokotasunean, gestio aplikazioa Educaria etxeko Alexia plataforma darabilgu. Horren bitartez kudatzen ditugu gure behar gehienak, administrazio ekonomikoa salbu.

Ikasleekin aritzeko CMS plataforma, edo ikaskuntza plataforma (PLE) bezala Saioka darabilgu. Alexiako gestioarekin datuak elkargurutzatzea ahalbidetzen digu, datuak bi tokietan ez osatzeko. Saiokako edukiak gureak, espreski egindakoak, eta ikastolen elkarteko Ikaslar liburutegikoak dira.

#### MANTENUA:

Mantenerako, IKT teknikari propioa dugu. Egunean zehar konponketak burutu ezin baditugu, lanak duen zailtasuna delako, edo gelaren funtzionamendua ez eteteko, badugu kanpoko enpresa baten laguntza, Xare sistemak. Azkenik, domeinu, zerbitzari eta azpiegitura kritikoen mantenua Duok enpresak burutzen du.

Aurreikusten diren mantenu lanak eta ekipo berritzeak urteko IKT planean aztertzen dituzte IKT teknikariak eta arduradunak, eta gero zuzendaritza eta ziklo bakoitzeko arduradunek osatzen duten IKT batzordeari aurkezten zaizkio.

#### Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Konpetentzia Digitala garatzea funtsezkoa da irakasleak eta ikasleak agertoki berrietan moldatzeko, ikasleek XXI. mendeko trebetasunak eta gaitasunak garatu ahal izan ditzaten, eta irakasleek irakatsi eta ikasteko prozesuak hobetu eta modernizatu ahal izan ditzaten.

Konpetentzia eskaera konplexuei erantzuteko eta zereginak egoki burutzeko ahalmena da. Trebetasun praktikoak, jakintzak, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta gizartearen eta jokabidearen beste osagai batzuk elkarrekin mobilizatzea eskatzen du, ekintza ganorazkoa izan dadin (ELGA, DeSeCo,2005).

Definizio hori abiapuntu izanda, Konpetentzia Digitala, gailu teknologikoen erabilerari dagokion trebetasun praktikoaz haratago, hauek, jakintza, motibazioa, balio etikoak, jarrerak, emozioak eta gizarte bezalako beste osagaiekin uztartzean datza, eta eskaera konplexuei erantzun eta zereginak modu egokian burutzeko ahalmena litzateke.

Konpetentzia Digitala garatzea, gaur egun teknologiak gure eguneroko bizitzaren alor ezberdinetan duen presentzia ikusita, ezinbestekoa da, bizitzako esparru ezberdinetan (pertsonean, akademikoan, lan arloan zein gizartean) topatuko ditugun arazo zein erronka ezberdinei aurre egiten lagunduko baitigu.

Ikastolaren plan digitala Hezkuntza Proiektuan integratuta egon behar duen plangintza-tresna bat da, LOMLOEren artikulua bakarrean jasotakoaren arabera. "Ikastolaren hezkuntza-proiektuak, halaber, ikastolaren estrategia digitala jasoko du".

2014an Eusko Jaurlaritzak hainbat hezkuntza eragilerekin elkarlanean "Heziberri 2020" Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa argitaratu zuen, Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza ildo estrategikoak bateratzeko helburuz, etorkizuneko belaunaldiak ongi prestaturik egon daitezzen bai Euskal Herrian bai munduan bizitzeko.

IKTak integratu eta curriculumean sartzeko, eta Konpetentzia Digitala curriculumean garatzeko, ikuspuntu hauek behar dira:

- Konpetentzia Digitala, jakintza arlo gisa (IKTez ikastea).

Konpetentzia Digitala, curriculum-arloetako eduki didaktiko multimediekin jarduteko (IKTetik ikastea).

- Konpetentzia Digitala, ikaskuntzarako eta jakintza eraikitzeke tresna gisa (IKTekin ikastea).

Konpetentzien araberako hezkuntzan, konpetente izateko, adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak jakin behar dira:

IKTak oso lagungarriak izan daitezke bitarteko tresna gisa, ikasleek adierazpenezko edukiak ikas ditzaten eta irakasleek hobeto irakats dezaten.

IKTak oso lagungarriak izan daitezke ikaskuntza-prozesuak hobetzeko, zeharkako eta diziplina baitako prozeduren tresna bitartekari moduan.

IKTak oso lagungarriak izan daitezke modu ordenatuan eta berreskuragarrian biltegitatu eta aurkezteko irakatsi eta ikasteko prozesuaren edukia, prozesuak eta produktuak.

IKTak lagungarriak izan daitezke ohitura eta jarrera batzuk garatzeko ere: prozesu kognitiboak (arreta, jakin-mina, interesa, motibazioa...) eta, batik bat, prozesu metakognitiboak (kontzientzia hartzea eta autorregulazioa); komunikazio-prozesuak (entzute aktiboa, errespetua...); lankidetzarako ohiturak eta jarrerak, sareko elkarlana, etab.

Alde horretatik, gizakia errespetatzea eta erabiltzaileen eskubide nahiz betebeharrak aintzat hartzea oinarri duten printzipio etikoekin bat datozen ohituretan eta jarreretan hezteko ezinbestekoa da, besteekin batera bizitzeko eta digitalki komunikatzeko.

## **Elaborazio prozesua eta lan-taldea**

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Proiektu honen garaketa gure IKT batzordearen gidaritzapean egin dugu. Bertako kideak diren maila desberdinetako IKT arduradunek eta zuzendaritzako kideek lan hau burutzeko bi pertsona hautatu dituzte Ikastolen elkartetik izendatutako mentorearekin elkarlanean aritzeko. Azken honekin adostutako plangintza honakoa da:

### *1 - Egoeraren argazkia:*

Urriaren zehar eta "Selfie for School" tresna erabilia, Ikastolako irudia zein den jasoko da, ikasle, irakasle eta zuzendaritza esparruan bideratu beharreko galdetegi batzuen laguntzaz. Galdetegi horien bitartez, esparru ezberdinetako errealitatearen islada jasoko da, Ikastolako etapa bakoitzeko txosten bat lortuta.

### *2 - Analisia:*

Azaro eta abenduan zehar, aurreko atalean jasotako txostenen analisiari ekingo zaio. Horrela zuzendaritza taldetik, etapa bakoitzeko txostena aztertu eta elementu esanguratuak identifikatu eta estamentu ezberdinen arteko adostasun mailak ikertuko dira. Guzti honen bitartez, azken pausoa, etapa desberdinen arteko ondorio eta laburpenak lortzea izango da eta horiek baliatuko dira AMIaren taula osatu eta honen ondorioak zehazteko.

### *3 - Helburuak*

Urtarrila eta otsaila bitartean, AMIA taula eta honen ondorioak oinarritzat hartuta, zuzendaritza taldeak plan digitalean ezarriko diren helburuak zehaztuko ditu. Helburu horiek gehienez 2 urteko epean eskuratzeko helburu errealek izan beharko dute.

### *4 - Ekintzak*

Otsaila eta martxoa bitartean, zuzendaritza taldeak, zehaztutako helburuak eskuratu ahal izateko aurrera eraman beharreko ekintzak zeintzuk diren finkatuko ditu. Ekintza horiek SMART metodologiaren logikaren barnean garatuko dira eta zein epetan garatuko diren eta jarraipena nola egingo den ere finkatuko da.

#### *5 - Dokumentuaren garapena*

Apirila eta maiatza bitartean, dokumentuaren idazketari ekingo zaio, eskeinitako txostenaren baitan. Horrela ekainean aplikatibora igo ahal izateko.

#### *6 - Publikatzea*

Ekainaren 16a baino lehenago, digitalizazio batzordearen buruak, IPDa aplikatibora igoko du.

### **Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena**

Proiektu digitala ikastolaren hezkuntza proiektuarekin bat etorriko da eta ikastolaren kudeaketa planean integratuta egongo da. Ikastolaren kudeaketa, plan estrategikoan oinarritzen da eta hori urteko planetara hedatzen da.

Proiektu digitalak azken bi atal hauetan bere zatia izango du, non plan estrategikotik urteko planera hedatzen diren helburuak zehaztuta izango dituen. Proiektu digitalean definitzen diren helburu eta ekintzak plan hauetan integratuko dira, epeertainekoak plan estrategikoan eta epe motzekoak (urtebetekoak) urtez-urteko planetan agertuko dira.

Proiektu digitalaren jarraipena urteko planean egingo da eta horrek erakutsiko digu bertan zehazten diren helburuak betetzen diren. Proiektu digitaleko helburuak betetzeak, bai urteko plana nola plan estrategikoaren betetze mailan eragingo du.

Urteko planak ikastola osoari eragiten dio eta zuzendaritzaren jarraipena eta ebaluazioa dauka, hala nola ikastola komunitate osoaren berrikuspena (artezkaritza, familiak, langileak eta ikasleak). Hortaz, proiektu digitalean definitutakoak jarraipen zehatza izango du komunitate osoaren bidez.

Hori horrela, ikastolako proiektu digitala erabat integratuta egongo da ikastolako kudeaketa testuinguru orokorrean.





## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.**

SELFIE edo beste autoebaluzio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Etapak bakoitzeko elementu esanguratsuenak, balio altuenak dituztenak eta baxuenak.

### LH BALIO ALTUAK:

Ikaskuntzarako gailu digitalak: Arlo honetan, bai ikasleek zein irakasleriak bat egin dute puntuatzerako orduan. Bi kasuetan, ziklo honetan hobekien baloratutako atala izan da. Gelak horniketzeko orohar, ordenagailu finko, proiektore eta bozgorailuak ditugu.

Ikasleentzako gailuak: Atal honetan ere puntuazioa altua da, baina kasu hauetan ikasleek 5 batekin baloratzea bereziki oso pozgarria da. Esan beharra dugu gainera, apostua indartsua dugula ziklo honetan, guk espreski ikasleentzat atondutako Linux gailuak bait darabilzkigu chromebook-ekin batera.

Laguntza teknikoa: Kasu honetan bestelakoa da emaitza lortzeko bidea. Oso balore altua lortu da erantzunetan, baina bereziki normalean gehien behar dutenen aldetik, irakasleak, eta ez horren altua ikasleen partez. Gure zerbitzu teknikoan IKT teknikari bat dugu egunerokoa, baita kanpo laguntza ematen duten enpresak bestelako lanetarako.

### LH BALIO BAXUAK:

Sormena sustatzea: Sormenaren sustatze digitala ez da ondo baloratua atera. Akaso, oraindik transizio digitalerako bidean, erabilpen berriak baloratzea komeniko litzaiguke.

Arazo teknikoak konpontzea: Laguntza teknikoa oso ondo baloratua dagoen bezala, era berean ikasleek bere kabuz konponketak egiteko gaitasuna ez dago ondo baloratua, gainera emaitza kaxkarrena ikasleek ematen dute.

Kodetzen edo programatzen ikastea: Bada, emaitza baxuena hemen izateak badu bere arrazoia. Izan ere, ez bait dugu ezertarako erabiltzen, ez bada hautazkoak diren errobotikako klaseetan.

### DBH BALIO ALTUAK:

Laguntza teknikoa: Lehen Hezkuntzaren antzerako emaitzak atera dira DBHko zikloan baina sailkapenean, ordenak aldatu dira. Atal honetan lortutako balorazioa ikasleen aldetik 5koa dela azpimarragarria da. Halaber, irakasleena nota 4,7koa da ere.

Ikasleentzako gailuak: Bigarren postuan ikasleen gailuak ditugu, hiru sailen balorazio oso positiboa lortuz. Aipagarria da gure lagineko ikasleek bere gailu propioa darabiltela, laguntza aurretik gure IKT kudeaketa ereduari jarraiki.

Hezkuntza-komunitatearekin komunikatzea: Atal hau oso ondo baloratu dute ikasleek zein irakasleek. Pozgarria kontutan izanda egunerokotasunean funtsezko lanabesa dutela biek, eta era desberdinetan erabiltzen dutela.

### DBH BALIO BAXUAK:

Beste ikasle batzuei haien lanari buruzko iruzkinak egitea: Atal hau balorazio baxuenetakoa du, pena kontutan izana hezkuntza-komunitatearekin komunikazioa ondo baloratua dagoela. Honen gainean, lana egin beharko dugu aztertzen bide desberdinak aztertzen, eta ahalbidetzen dituzten aukerak baloratzen.

Kodetzen edo programatzen ikastea: LHn ez bezala, hemen badu aplikazio maila handiagoa izatea. Gure egunerokotasunean erabilera pedagogikoak aztertzeke saiakera egin beharra dugu.

Arazo teknikoak konpontzea: LHko egoera berdina. Laguntza teknikoa 5 batekin baloratua dago, baina ikasleek bere kabuz konponketak egiteko duten gaitasuna ez dago ondo baloratua, oso emaitza kaxkarra eman diote ikasleek. Baliabide teknologikoen beharra ikusita, derrigor hobetzeko puntua.

#### BATXILERGOA BALIO ALTUAK:

Ikaskuntzarako gailu digitalak: Bai ikasleek zein irakasleek maila honetan 5 batekin baloratu dituzte ikasgeletako hornidura. Maila honetan, COVID-19a dela eta hornidura LH-n baina osatuagoa dago. Ordenagailu finko, proiektore eta bozgorailuez gain, badira mikrofono, bideo-kamera, tablet eta kasu batzutan arbel digitalak klaseak online moduan eman ahal izateko. Baita ere, Autocad-eko klaseak emateko karro bat espreski prestatuta dugu.

Hezkuntzako online baliabideak: Beste 5 bat, ikasleen partez, eta 4.3 bat irakasleen aldetik. Aipatzekoa irakasleek egindako lana beraien baliabide digital propioak sortzeko, eta teknologia berriak txertatzeko klaseetan.

Hezkuntza komunitatearekin komunikatzea: Orokorrean, pedagogia atalak oso balorazio onak jaso ditu, bereziki ikasleen aldetik, eta kasu honetan beste 5 batekin baloratu dute. Beste zikloetan bezala, oso pozgarria, komunikazio eraginkor batek duen berebiziko garrantziagatik.

#### BATXILERGOA BALIO BAXUAK:

Arazo teknikoak konpontzea: Beste zikloetako egoera errepikatzen da batxilergoan, guztiz logikoa den moduan. Planteamendua errotik hasi beharko dugu garatzen, ziklo honetara ailegatzerakoan ikasleen gaitasunak hobetze aldera.

Disziplinarteko proiektuak: Puntuaketa oso baxua jaso du galdera honek, eta ikasleen aldetik feedback-a ostean, badu galderaren zehaztugabetasunak puntu bat erantzunaren balio baxuan. Uztarketa garatzeke, disziplinarteko lanon kontzeptua ere garatu beharko genukela uste dugu.

Kodetzen edo programatzen ikastea: LH eta DBHko joera hemen ere errepikatzen da. Orokorrean, ziklo guztietan planteamendua aztertu behar dugu.

## AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

### Faktore negatiboak

#### Ahuleziak (barne-faktoreak)

Ikasle/ikasle eta ikasle/irakasle arteko interakzio digital zehatzak hobetu behar, ebaluazio digitalak, iruzkinak, foroak, e.a.

Ikasleek gaitasun digitalak garatzeke: arazoak konpontzeko eta lengoaia digitalak (kodetze zein programazioa).

Teknologien erabilera gehiago zabaldu.

#### Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

Bost eraikinetan konexio ezberdina izateak zaildu egiten du lan baldintza ekitatiboak bermatzea.

Konexioaren kalitatea eraikin nagusian (zuntzarik ez).

Arrakala digitala, ikasleen etxeetan konexioa ez dago bermatua egun, diferentzia sozio-ekonomikoak.

Dependentzia teknologikoa.

### Faktore positiboak

#### Indarguneak (barne-faktoreak)

Estamentu guztien jarrera ona teknologiaren erabileraren alde, eta era arduratsuan egiteko.

Ekipamendu digitalen erabiltzaileen balorazio ona hornitze zein zerbitzuan.

Hezkuntza komunitatearekin komunikatze prozesu bizi eta eraginkorrak.

#### Aukerak (kanpo-faktoreak)

Azken ekipo horniketeez ikasleei ekipoak erabiltzeko orduan, erabiltzaile esperientzia hobea emango diote.

Abiadura handiko interneta eraikin nagusira

Software librea hezkuntzan erabiltzearen onurak aztertzea.

## Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

### Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Estamentu guztien formakuntza digitala sustatu daiteke, gaur egungo erabilerak sendotzeko, eta aurrera begira, berriak bilatzeko.

Parkearen kudeaketarako plangintza (mantenu eta erosketak) epe ertainera berrantolatu genitzake, funts berriak direla eta duela urte batzuk egindako aurreikuspenak aldatu baitira, ez baitzen gailu berriekin kontatu.

Komunikazioa efektiboa izan arren, hauek aztertuz eta teknologia berriak direla medio, atal zehatzak hobetu daitezke.

### Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

Aipatu bezala, komunikazioa efektiboa da, baina atal zehatz batzuk hobetzeke daude: hauek sakonki aztertu, iruzkinak etab.

Pentsaera komputazionala, orohar, eta programazio lengoaien erabilera azter litezke, ahal eta nahi izanez gero, ondoren garatzeko.

Ikasleek haien kabuz arazo digitalak konpontzeko azalpenak, tresnak eta pausu zehatzak eman eta zerrendatu komeni litzateke, ikasleen buru jabetasun teknologikoa bultzatzeko.

### Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

Ekipo berrituek potentzia handiagoa dutenez, hardware exigentzia eta erabilera handiagoa duten erabilera berriak aztertzea komeni da.

Telekomunikazio azpiegituren aukera berriak aztertu beharra dago, eraikin nagusiko abiadura handitzeko eta ondorioz erabiltzaile esperientzia hobetzeko.

IKT talde lana nola bultzatu aurreikus daiteke, software berriek ahalbidetzen dituzten aukerak baloratzeko (I+D digitala), software librea (GNU, Linux etab.) aztertu, dependentzia digitala minimizatzeko.

### Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Software aukerak ondo aztertu behar dira, fisikoki zerbitzariaren kontra lan egiteak dituen arazoak ekiditea komeni baita (Cloud motako biltegiak, esaterako).

Movistarrekin harremanetan jarri beharko ginateke zuntzaren zabalkundearen eta despliegeari kontuan har gaitzaten.

Arrakala digitala ekiditeko, ikasleei konexio eta baliabide digital exigentzia duten lanak agintzerakoan, ikasle eta gurasoekin azpiegitura egokiak direla bermatu behar da, eta hala ez balitz, konponbideak bilatu beharra dago.

Korporazio handiek eskeintzen dituzten zerbitzuen erosotasuna kontrajarri eta baloratu, datuen erabilera arduratsua egiteko, dependentsiak aztertzeke, saihesteko edota alternatibak planteatzeko (Google, Microsoft...).



### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
Deskriptorea	Epea	
Adierazlea	Mota	Helmuga

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera

## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

### Helburua

Pantailen eta interneten erabilera duen eragin eta arriskuen inguruko saio didaktikoak antolatu ikasle eta familiekin . DBH1eko ikasleekin, klase bakoitzeko bi saio, eta gurasoekin tailer bat antolatu, Orainprebentzio enpresa eta Orientazio sailaren eskutik.

Deskriptorea	Epea	
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2023/06/12	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A4 Egutegian formakuntza saioak ere finkatuta daude.	Ehunekotan	100%

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
DBH1eko ikasleak ordubeteko bi saio gela bakoitzeko.	Orainprebentzio enpresarekin batera ikastaroa, Chromebook-ak, internet-eko sarbidea.	Orainprebentzio eta Orientazio saila.	2024/05/31	Egina
Gurasoentzako tailerra antolatu ikasleena egin ostean.	Orainprebentzio enpresarekin batera ikastaroa, internet-eko sarbidea.	Orainprebentzio eta Orientazio saila.	2024/06/15	Egina
Balorazio galdetegiak bidali gurasoei.	Google-eko inprimakiak	Orientazio saila.	2024/06/21	Egina

## GP Garapen profesionala

Helburua		
Irakasleen %80 digiprest-erako bidean lagundu, talde saio bitartez, eta IKT-en erabilera trebatzeko probestu saiook.		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira		
Adierazlea	Mota	Helmuga
GP 1.5 A1 Irakasleei Prestgara, INTEF eta beste erakundetako ikastaroak egitera animatzen zaie.	Ehunekotan	80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digiprest-erako Saioka.eus webgunea abiapuntu bezala hartuta, ikastaroak atondu, bertan azaltzen diren atazak, eta zikloen erabilera kontutan izanda, osatzeko eta probesteko ikastaroak IKT formakuntza moduan.	Windows eramangarriak ikastaroak emateko. Gelak, eta bertako proiektoreak. Interneteko sarbidea, Wifi sarea.	IKT	2023/12/21	Prozesuan (%80-99)
Maila eta zikloko koordinatzaileekin adostu egutegian noiz eta nola eman ikastarook .	Bilerak adostu, eta eraikin nagusiko gelak erabili.	IKT+Zuzendaritza+ Koordinatzaileak.	2023/09/11	Egina
Behin ikastaroak emanda, mentoreekin lortutako emaitzak onak direla baieztatu, eta jaso irakasleriaren "feedback"-a, ikusiz aurrera begira osatu litezken ikastaro hauek bestelako gai eta eskariekin.	Galdetegi bitartez jaso erantzunak (Google Forms). Drive bitartez, partekatu beraien artean lanak eta ideiak, egin ahala.	Partehartzaileak, IKT, zuzendaritza, eta koordinatzaileak.	2024/01/15	Egina

## EJ Ebaluazio jardunbideak

### Helburua

--

### Deskriptorea

### Epea

--	--

### Adierazlea

### Mota

### Helmuga

--	--	--

### Ekintzak

### Baliabideak

### Arduradunak

### Epea

### Egoera

--	--	--	--	--



## EC Edukiak eta curriculuma

### Helburua

--

### Deskriptorea

Epea

--	--

### Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

### Ekintzak

### Baliabideak

### Arduradunak

### Epea

### Egoera

--	--	--	--	--

## EN Elkarlana eta networking-a

### Helburua

--

### Deskriptorea

Epea

--	--

### Adierazlea

Mota

Helmuga

--	--	--

### Ekintzak

### Baliabideak

### Arduradunak

Epea

Egoera

--	--	--	--	--

## AZ Azpiegiturak

### Helburua

Wifi sare berriak osatu irakasle, ikasle eta administrazio sarbideak iragazteko. Bakoitzak izango du bere sare eta arau espezifikoak.

Deskriptorea	Epea
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak	

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.1 A1 Ikastetxeak dokumentu bat edo atal bat du ikastetxeko espazioak, ekipamendua eta baliabid	Bai/Ez	BAI
AZ 1.1 A2 Irakasleen harrera-dokumentuan, gorabeherak eta matxurak komunikatzeko eta kudeatzeko	Bai/Ez	BAI
AZ 1.1 A3 Ikastetxearen proiektu digitala garatzeko ardura duen batzordeak, hiru hilean behin, akordio	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
WIFI Sarearen plano berria osatuko dute IKT taldeko kideek	Ekipo informatikoak planoak diseinatzeko	IKT	2023/10/09	Egina
WIFI sare berrien izenak, erabilerak eta debekuak planteatuko dituzte IKT taldeko kideek, eta zuzendaritzarekin behin onartuta, irakasleria eta koordinatzaileekin hobekuntzak planteatzeko espazioa bilatu.	Wifi puntuen kontrolagailua eta sarbide puntuak konfigurazioa. Sareko ekipoen inbentarioa. G-suiteko kontrol panela.	IKT+Zuzendaritza	2023/11/13	Prozesuan (%60-79)
Gaur egun ditugun ekipoak berriz ere konfiguratu beharko dira, masiboki egiteko aukera aztertu gure hornitzaile informatikoeekin, eta behar izanez gero, aurrekontuak eskatu eta baloratu.	Sareko ekipoen inbentarioa. Zerbitzaria eta sarea. Microsoft Active Directory, domeinua.	IKT+Zuzendaritza	2023/12/31	Prozesuan (%60-79)

### Helburua

Eraikin nagusiko internet sarbideko ekipoak gure eraikinean kokatu, gaur egun udaletxean dauden ekipoen bitartez izan beharrean. Hornitzaile desberdinekin saiatu sarbide zuzena lortzen.

Deskriptorea	Epea
AZ 1.2 Ikaskuntza-ingurune birtualak optimizatzen dira.	

Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 1.2 A2 Zentroak jarduera-protokolo bat du, eta, bertan, lineako ikaskuntza-ingurunea eskaintzeko b	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Udaletxeak orain arte hornitzaileekin adostutako hitzarmenen berri eskuratu.	Udaletxeko harremanak.	IKT+Zuzendaritza	2023/12/31	Egina

Hornitzaile desberdinekin bilerak adostu, aukerarik onena bilatzeko, bai baldintza ekonomiko zein erabiltzaileen sarbide aldetik.	Komertzial desberdinekin harremanetan jarri.	IKT+Zuzendaritza	2024/02/01	Egina
Gure zerbitzu informatikoen kudeaketarekin laguntzen gaituzten enpresekin informazioa baloratu.	Harremanetan jarri enpresekin.	IKT	2024/03/04	Prozesuan (%60-79)
Beharrezkoa balitz, aurrekontu desberdinak eskatu eta baloratu (IKT +Zuzendaritza).	Merkatu azterketa.	IKT+Zuzendaritza	2024/06/27	Prozesuan (%60-79)

## IB Ikastetxeko berariazkoak

### Helburua

--

### Deskriptorea

### Epea

--	--

### Adierazlea

### Mota

### Helmuga

--	--	--

### Ekintzak

### Baliabideak

### Arduradunak

### Epea

### Egoera

--	--	--	--	--



## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG						
II	Pantailen eta interneten erabilera duen eragin eta arriskuen inguruko saio didaktikoak antolatu ikasle eta familiekin. DBH1eko ikasleekin, klase bakoitzeko bi saio, eta gurasoekin tailer bat antolatu, Orainprentzio enpresa eta Orientazio sailaren eskutik.	Ikasleen saioak bukatuta, 2024 Maiatzean.	Google Forms bitartez galdetegiak bidali ikasleei.	Orientazio taldea.		
		Behin tailerra emanda, 2024 Ekainean.	Google Forms bitartez galdetegiak bidali gurasoei.	Orientazio taldea.		
GP	Irakasleen %80 digiprest-erako bidean lagundu, talde saio bitartez, eta IKT-en erabilerak trebatzeko probestu saioak.	1) Saio bakoitza amaitu ostean, ostiralero. 2) 2024ko Otsaila. 3) 2024ko Martxoa. 4) 2024ko Apirila.	1) Saioak egin ahala, jaso emaitzak Saioka-ko panelaren bitartez. 2) Saio guztiak amaitzean panel bitartezko irudi orokorra jaso. 3) Galdetegi bitartez jaso irakasleriaren balorazioa eta iradokizunak. 4) Bildu Zuzendaritza, Koordinatzaileak eta IKT taldea saioak baloratzeko.	IKT taldea.  1) IKT taldea. 2) IKT taldea. 3) IKT, Zuzendaritza + Koordinatzaileak. 4) IKT, Zuzendaritza + Koordinatzaileak.		
EJ						
EC						
EN						

AZ	Wifi sare berriak osatu irakasle, ikasle eta administrazio sarbideak iragazteko. Bakoitzak izango du bere sare eta arau espezifikoak.	1) 2023ko Iraila. 2) 2024ko Urtarrila. 3) 2024ko Urtarrila.	1) Sareko ekipoen karga neurtu. 2) Galdetegi bitartez jaso irakasle eta ikasleen erantzunak. 3) Erabiltzaileen balorazioak jaso galdetegi bitartez.	1) IKT taldea. 2) IKT+ Zuzendaritza. 3) IKT taldea.		
AZ	Eraikin nagusiko internet sarbideko ekipoen gure eraikinean kokatu, gaur egun udaletxean dauden ekipoen bitartez izan beharrean. Hornitzaile desberdinekin saiatu sarbide zuzena lortzen.	1) 2023ko Azaroa. 2) 2024ko Ekaina.	1) Abiadura test-ak egin egungo egoera baloratzeko. 2) Abiadura test-ak egin egoera sarbidea aldatu eta gero baloratzeko.	IKT taldea.		
IB						